

Herria ez da Ertzaintzarena!

BADU gure artean egi-itxurako gezurrak aginpiderik asko, eta hona, kolpe-
ra, horietako bat: «artzantza ardiarena da». Izan ere, ardiak kaka ez-
ezik dirua ere egiten duenetik, ezagutu al da sekula artzantzapeko ez den ardirik? Ze itxura luke? Bee-rik ere egingo al luke? Ezin deus jakin ardiaren atarramentuaz, baina, debrien zikirua!, jakintzat emana dago: ardiak larre garbia utzi, sasia galdu eta otsoak jango luke erremedio gabe. Zergatik eta haatik. Eta egin dezagun kontu orain, badoala unibertsitatean jantzitako pizti-ikerlari bat bizian aurreneko ikusten duen artalde bat luze-laburrean neurtzera; tesiaren funtsa: «artzantza ardiarena al da?» Unibertsitaria, esan gabe doa, fundamentalismo numeriko-demokratikoan (FND) eskolatua dator eta luze gabe aitortzen du baietz, badirela artaldean ardi beltzak, gaiztoak, umetan amak gaitzetsiak, herrenak, itsusiak, lesbianak eta errebelatzeko jaidura dutenak, baina izanik hauek gutxiengo arbuigarria eta bildots ezti eta ardi txuri otxanena berriz, gehiengo garbia, FND-aren legeen arabera erabakitzen du (A) artzantza ardiarena dela, eta (B) ardia artzaintzarena dela. (Bere tesiaren iroizgarri anekdotiko moduan gehitzen du, tokiko zaharrei aditurik eta pentsamendu mitiko-poetikoari behingoagatik amor eginez, ardi-
bee horrek 'bertan goxo' esan nahi duela).
Gatozen hankabikoetara. Zer da herria?, eta zer da herriarena? Airean herriarena al da?, eta ura edo eguzkia? Ezetz dirudi; ez gure behintzat horren errez esango 'herriarenak' direnik. Hizkuntza, tzaindik gabeko hizkuntza, bai beharbada? Baliteke: herriaren hitza, herriaren bihotza, sentimendua, arrazoa...; horiek badakigu behintzat, izatekotan ere, 'herriarenak' direla, eta ez 'herrikoak'. Nolanahi ere, oso gauza gutxi du herriak bererik, kasik batere ez; herriko plaza bera ere ez da berea, bertakoa

baizik. Baina ba al da herririk?, gelditzen al da herririk gizabanako hiritar interaktiboen mundu birtual honetan? Euskal Herria bere ere badakigu Euskal (?) Hiriak hil zuela. Politikoen 'gure herria', 'herri hau', 'herri xehea' eta horiek ere ez digute balio guri, hemen behelaldeko zerari, jende-ari-edo... 'herriari' esango al dut? «Baina ze uste dut honek, herria bera dela?» Ez dago asmatzen errega...
Hori bai, FND-ak itsututako batentzat ez dago duda-mutturik eta ez inolako harat-hunatik: herria da herritarrek osatzen duten multzo demokratikoa, hau da, Herrizaingoko Artzain Onaren ordenadorean behar bezala zerrrendatua eta filmatua dagoena edo datzana. FNDtiarrak satisfaziozko parreantzen ergel batekin begiratzen dio 'herria' era 'herrikoia' batean ahotan hartzen duen gixaioari; asaba zaharren amebaz ari dela irudituko zaio seguririk: «herria? ji-ji, ze herri?».
Bistan da, beraz, fundamentalismo garaitiarrentzat herriarena ('herritarrena') edozer gauza izan daitekeela eta, jakina, Polizia eta Ertzaintza ere bai, bete-betean eta ez erretetik bakarrik. (Ohar filolojiko: *ertzain-i h-a* kendu ziotenek, kentzaileetako batek esanda dakit, uste zuten herriak (sic) ez zuela hitz hori *herri*-rekin lotzen, baizik, nonbaiteko euskaldun garbi eskolagabe bati norbaitek entzun zionez, *ertz*-ekin).
Baina asma ote daiteke herriarena den Polizia edo Ertzaintzarik? Ea, egin dezagun saio bat: artzaintza ekolojiko bat (ur garbi soilez kargatutako armak erabiliko lituzkeena); onbera, bihozbera, Jehova-ren Lekukoz osatua, bakezalea (bakea jarri ez baina bakea emango lukeena); ikusizko informazioa apropostako kamarekin jasoko lukeena (badakizue, umeek ibiltzen dituzten plastiko horizko foto-kamara polit horiek, botoiari saka eta, piip!, piura pa-

rregarri hori ateratzen dutenak); azken ikastaroa Errezilgo zapateroaren eskolan egingo lukeena (ari zela, ari zela, zertan ari zen ahaztu egiten zitzaion gizajo hari);... bai, ez legoke gaizki, baina, hala ta gutziz ere, ez litzateke herriarena izango, erizaina erriarena edo haurtzaina haurrena ezin izan litezkeen arrazoi beragatik, eta, kasu honetan, herriak, ikusi dugun bezala, ez duelako kasik deus bererik, FNDtiarren setak besterik badio ere.
Eta, bizkitartean, iraultzaile ofizialak agindurik ibili den oihu hori ('Ertzaintza ez da herriarena!') oso arrazoi motza eta kamutsa egiten neri belarrira, eta errezelo txarrekoa gainera. Edozeinek antzematen dio, izan ere, ahapaldi berez tribial eta tautolojiko horretan zer irakurri behar den: Ertzaintza ez da herriarena, baina ez ezin izan daitekeelako, baizik, hala izan beharko lukeena, arrazoi akzidentalak direla medio (eskua maiztxo joan zaielako, 'gure mutilak' gogor hartu eta garbitu dituztelako...), hala ez dela ikusi dugulako orain, eta hala izango delako herria Ertzaintzaren zinezko jabe egiten denean bakarrik. Aurrera bolie! Irabazi(ko) dugu! Etorriko da eguna «Ertzaintza herriarena da!» kantuz goraki errepikatuko duguna. Eta bejondeizuela zuei, FNDtiarretan ultrenak ere amesten ez dutena egia bihurtzera deituak zaretenoi!
Bien bitartean, herria zer ez den bai, baina zer den seguru ez dakigun ezjakin deslai gozakaitzok aukeran nahiago dugu bazpaere lehen, orain eta betiko balio duen oihu zinez herriko honekin ezarriki urratzera: «herria ez da Ertzaintzarena!».

INAKI SEGUROLA
FILOLOGOA

Delors andregaiia


BILBOKO Arriaga antzokian gertatutakoarekin badu zer ikusi aipatzera noan gaiak. Bai, hain zuzen Araba eta Bizkaiko bertso txapelketako saioan entzun ahal izan zen kartzelako gaia hauxe zen: «Ezkontzeko asmotan elizara joan eta ordubete daramazu andregaiaren zain».
Frantziar estadoan ere ezker tradizionala eta huntarik at gizartearen parte zabal bat Unai eta Aritzek, besteak beste, jorratu behar izan zuten gai berdintsuarekin aurkitzen ziren duela zonbait aste. Gizarte sondeoguziek alta eztei eder batzua iragartzen zituzten: Chirac eta Ballardur-en aldean Delors airez aire irabazdun ateratzen zen. Dena egin balitz bezala zegoen: Bigarren itzulian Ballardur, Delors: bi hautagai serioak, bi estado gizon, frantziar gizarteari konfiantza ematen dieten horietarik. Bat eskuinaren bozeramaile liberala, burgesa osoki, Maastrich-en aldekoa. Lehenago Mitterrandek baliatu lema '*le forcé tranquille*' ederki doakion horietarikoa. Delors ezkerrean bozeramaile? ez da hain argi. Delors osoki sozial demokratara, kristianoa, PSUren sortzaileetarikoa Rocard-ekin ez da beti 'ezkerrean' ibili. Eskuineko kargudun batzuen konfiantza izan du eta adibidez duela zonbait urte Chaban Delmas lehen ministroaren aholkularia ere izana da. Gero alderdi sozialistean sartuko da. 1984 finantza eta ekonomia ministroa izan zen eta '*La rigueur*' izenpean ezaguna eta zoritxarrez langileriaentzat oso bortitza bihurtuko den politika berriaren sortzaileetarikoa.

1985ean Brusselan sartzen da eta geroztik han dirau europazale. Horiak hola, desberdintasun haundi haundirik ez da bi gizonen artean. Frantziar gizarteak doi doietarik agertu zen Maastrichen alde. Frantziar gizarteak gehiengo zabal-zabal bat eman dio eskuinari legebiltzarrean eta senatuan. Bizkitartean hara nun orai, sondeoen arabera behintzat, gizarte horrek bera 'ezkerrean' sailkatzen den sozial demokrata bat eta europazale amorratua nahi zuela lehendakari bezala. Kontraesana ala frantziar berezitasuna. Bai bainan hara, andregaiak jakinarazi dio senargaiari ez dela elizara etorriko. Ukaldi gogorra izan bada ere aintzientzat, bereziki makurtu dituenak dira frantziar alderdi sozialistakoak. PSF biziki egoera larrian aurkitzen da azken urteotan. Legebiltzarrean gehiengo galdu zuenetik, korriente ezberdinen artean lehiaketa suizidario, egun bakarrek alianza, salaketa bortitz eta abar baizik ez da izan. Rocard jarri zen alderdiko idazkari nagusi lehendakari bezala aurre-kanpaina abiatzeko bainan honek dimititu behar izan zuen Europar legebiltzarerako hauteskundeen emaitza txarrak ikusita eta PSF-a peko errekan utziz. Hor bat batean, alderdiak ikusi du Delors salbatzaile bat izan zitekeela Batasun artifizial baten itxura emanez, barne eztabaida isilaraziz eta korrienteen arteko guduak su-eten behin-behineko hategiz PSFk nahi izan du sondeotan garaile ateratzen zen zaldi on hori bereganatu beren karko hondatua zilotik atera zezan.

Batere egitarau argirik gabe, koherentzia izpirik gabe alderdiak Emmanuelli idazkari nagusi berriaren eskutik '*un virage à gauche*' hartu duenean beraiek diotenez eta aldi berean beren andregaiia keinuka ari zelarik zentristei eta liberaleri 'hirugarren bide' bat urratu nahiz. Bai, erran daitaie 'Delors, sozialist zuhaitza gordetzen duen basoà zela'.
Eta orain zer? Tapie 'radikal-ekoa' Berlusconi bezalatsu da. Egun batetik bestera politikoki ehortzia izaiteko arriskuan dabil. Horrek guziak erakutsi diezaguke PSFk eta orokorki ere frantziar ezkerrek ez dezakeela benetako barne hausnarketa baten ekonomia egin. Oportunistik at, Lehendakartzarako hauteskunde personalizatu hortarik at eztabaidak arrazentratu behar daitaizke ezkerrean konzeptuan: Norekin eta zer egiteko.
Eta guk hemen, Iparraldeko ezker abertzaleok zer egin hauteskunde horien karietara? Momento egokia izan daiteke berriz ere gure eskakizunak plazaratzeko. Hil ala biziko gaia den Lurraldetasunaren aldarrikapen kanpaina berri batetan zentratuz. Biharko Frantziako lehendakariari jakinaraz diezaiogun beren euskal arazoak bizi bizirik dirauela eta aterabide akordatu batek baizik normaliza dezakeela egoera.

PANPI SAINTE-MARIE
EMA-KO MILITANTEA

BERRIAKZIRI



JOSE AMEDO
Espainiako
polizia ohia
EL MUNDO

«Ez dut historiara korrupzioa estaliz pasatu nahi»



JUAN MARIA ATUTXA
EAEko Barne sailburua
EL CORREO

«EAJren xedea ez da zatiketa eragitea mundu erradikalaren baitan»



PATXI ZABALETA
HBko Mahai Nazionalako kidea
DEIA

«Atutxa-ren jurisdikzioa atestatu polizialak salbuespeneko jurisdikzio bati ematea baino ez da; jurisdikzio hori, gainera, Estatua-ren erdian dago eta Euskadiri inposatu egin zaio»



VALERY KARPIN
Realeko jokalaria
EL DIARIO VASCO

«Etxeko lanak emakumeen kontua dira, baina zaborra nik jaitsi behar izaten dut beti»

ZAKILIXUT

© Olariagak

